



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko maiatzaren 25ean

44 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (11. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Foru lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko toki entitate eta erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etorkinak gizarteratzeko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, haur hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) abiatzeko arauak egiterakoan irizpide batzuk kontuan har ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (15. or.).
- Mozioa, Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da C-135 errepidearen egokitze osoa 1998-2003ko Errepideen Plan Zuzentzailean sar dezan. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (16. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektuari buruz Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 2000ko martxoko 13ko 23 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Laurogeiko hamarkadako lehenbiziko urteetako erabateko krisi ekonomikoak ondorio larriak izan zituen Foru Komunitateko industri bilbean. Hori zela eta, Nafarroako Parlamentuak martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legea, krisian zeuden enpresak saneatu eta berriro abian jartzeko laguntzak arautzen zituen, onetsi zuen. Lege horrek Nafarroako Gobernuaren esku utzi zituen finantza eta zerga tresna asko, kinka larriaren zeuden enpresei lagundu ahal izateko.

Foru Lege hark bi betebeharrak funtsezko ezarritzen zituen laguntzak hartu ahal izateko: enpresa saneatu eta berriro abian jartzeko plan koherente eta errealista bat, geroan bideragarria izan litekeela aurreikusitako modukoa, eta enpresaren titularrak, bertako langileek eta, hala bazen, hartzeko-dunek plana hartzeko konpromiso sendoa eta itunduriko neurriak betetzeko ere bai.

Foru Lege horrek indarra hartu zuenez geroztik, ehun baino gehiago enpresa sartu dira bertan ezarritako laguntza araubidean. Horietatik gehienek gainditu dituzte zailtasunak. Horrek frogatu egiten du laguntza araubide hori egoki eta beharrezkoa zela.

Espainia Europako Ekonomia Elkartean sartzean, laguntza araubidea Europako Batzordeari jakinarazi zitzaion. Hori zela-eta Nafarroan indarrean iraun zuen legezko araubide horrek, krisian zeuden enpresak berregituratzeko laguntzei dago-kienez.

Baina, 1994an, Europako Batzordeak Europako Batasunaren jarraibideak eman zituen krisian zeuden enpresak salbatu eta berregituratzeko Estatuko laguntzei buruz (1994ko abenduaren 23ko Europako Elkartetako Egunkari Ofizialean argitaratu ziren), eta Nafarroako agintariei eskatu zien hemengo arauteria jarraibide haietara egokitzeko. Jarraibide haien ordez beste batzuk ezarri dira (97-09-19ko Egunkari Ofizialean argitaratu ziren), nekazaritzako sektorean berriaz sarturiko aldaketak ukitzen zituztenak. Hona hemen jarraibide haien alderdirik garrantzitsuenak:

– Salbatzeko eta berregituratzeko laguntzak elkarrengandik bereizten dira. Salbatzekoen xedea da finantza egoera larrian dagoen enpresa bati aldi baterako sorostea, egoerari aurre egiteko planak aztertu eta prestatu arte. Berregituratzeko-en helburua, berriz, plan bat abian jartzea da enpresaren bideragarritasuna epe luzerako bermatzearren.

– Berregituratzeko laguntzak emateko betebeharrak orokor batzuk ezartzen dira, hala nola, bideragarritasuna, konkurrentziaren behar ez bezalako faltsukeriarik eza, laguntza berregituraketaren kostu eta onurekin proportzionala izatea, berregituratze plana oso-osorik aplikatzea, bertako baldintzak betetzea eta Europako Batzordeak urtean-urtean ikuskatu eta txosten bat luzatzea.

– Enpresa txiki eta ertainak handietatik bereizten dira berregituratzeko laguntzak emateko ezarritako betebeharrak betetzeko zorroztasunari dagokionez, baita laguntza araubide bat ezartzeari eta aurretik jakinarazteari dagokionez ere.

Europako Batzordeak eskatzen duena betetzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak, 1997ko irailaren 1eko bilkuran, erabaki zuen Europako Batzordeari jakinaraztea, Europako Erkidegoko Ituneko 93. artikuluan aurreikusiriko ondorioei dagokienez, krisian zeuden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua. Horren bidez Batzordeak onetsiriko Europako Batasuneko jarraibideetara egokitzen da krisian dauden enpresak saneatu eta berriro abian jartzeko laguntzak arautzeari buruzko martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legea.

Proiektuan aldaketa batzuk sartu ondoren, Europako Batzordeak eskatuak, horrek jakinarazi du, 1999ko martxoaren 3ko gutunaren bidez, erabaki duela Foru Lege honetako laguntza araubidearen aplikazioari oztoporik ez jartzea, EE Ituneko 93.3 artikuluko c) idatz-zatiko eta EEE Ituneko 61.3 artikuluko c) idatz-zatiko salbuespena aplikatzekoa baitzaio.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko arautegia krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko Estatuko laguntzei buruzko Europako Batasuneko jarraibideetara egokitzea.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Aplikazio eremua

Foru Lege honetan aurreikusiriko laguntza araubidean sartzen ahalko dira Nafarroan kokaturik dauden enpresak, krisian badaude eta krisi horretatik bakarrik ateratzerik ez badute, ezarritako betebeharrak betez gero eta krisia gainditzeko behar diren neurriak hartzeko prest egonez gero.

Europako Batasuneko berariazko arauak zuzentzen duten sektore bateko enpresa bat izanez gero, laguntza araubide hau bakarrik aplikatuko zaio arau haiekin bat bateragarri den heinean. Betiere, nekazaritzako lehengaiak ekoizten dituzten enpresak laguntza araubide honetatik bazterturik egonen dira.

Hurrengo artikulua enpresa txiki eta ertainei buruz ematen den definizioarekin bat ez datozten enpresei laguntzak eman ahal izateko, Europako Batzordeari aldeztu aurretik eta banan-banan jakinarazi beharko zaio, baimendu dezan.

2. artikulua. Definizioak

Foru Lege honen ondorioetarako, hau ulertzen da:

– **SALBAMENDUA:** finantza egoera larrian dagoen enpresari aldi baterako sorosteko eragiketa bat, harik eta haren zailtasunak sortu dituzten inguruabarrak aztertu eta egoerari aurre egiteko plan bat prestatu arte, baldin eta hasieratik uste bada posible dela epe luzerako konponbide bat aurkitzea.

– **BERREGITURAKETA:** gauzatzen ahal diren neurri koherenteen multzoa, eragin handikoa, enpresa baten bideragarritasuna epe luzerako ezartzea xede duena.

– **BERREGITURATZEKO EDO BERRESKURATZEKO PLANA:** agiri bat, enpresaren egoera zorrotasunez aztertu eta haren zioak zehaztu ondoren, enpresaren bideragarritasuna epe luzerako berreskuratzeko eta hori lortzeko behar diren denetarikoa neurriak proposatzen dituen, neurriak aplikatu ondoren lortu nahi diren emaitzen aurreikuspena barne.

– **ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK:** Europako Batzordeak kalifikazio horretarako zehazturiko ezaugarriak biltzen dituzten enpresak.

Aurrekoarekin bat, enpresa txiki eta ertaina izateko beharrezkoa da:

- 250 langile baino gutxiago izatea.
- Haren urteroko negozio tamaina 40 milioi eurotik beheitikoa izatea edo haren urteroko balantza orokorra 27 milioi eurotik beheitikoa izatea.
- Independentzia irizpidea betetzea, ondoren zehaztu bezala.

Enpresa bat independentetzat jotzen da txiki edo ertainen definizioa betetzen ez duten enpresek haren kapitalean edo haren boto eskubideetan % 25eko partaidetza edo hortik goitik ez badute. Maila hori bi kasutan gainditzen ahalko da:

a) Enpresa inbertsioko enpresa publikoek, kapital arriskuko enpresek edo inbertitzaile instituzionalek kontrolatzen dutenean, baldin eta haiek, banan-banan edo batera, enpresan inolako kontrolik ez badute.

b) Kapitalaren banaketaren ondorioz, ezin zehaztu denean nor den haren titularra eta enpresak zuzenbidez adierazten duenean txiki edo ertainen definizioa betetzen ez duten enpresek haren kapitalean edo haren boto eskubideetan % 25eko partaidetza edo hortik goitik ez dutela.

II. KAPITULUA

Salbamendurako laguntzak

3. artikulua. Xedea

Salbamendurako laguntzen helburua izanen da enpresari bere funtzionamendua bermatzeko behar-beharrezkoa duen likidezia ematea, haren egoera aztertu eta berreskuratzeko plana prestatu arte.

4. artikulua. Betebeharrak

Laguntza horiek emateko honako hauek bete behar dira:

1. Enpresa finantza egoera larrian egotea, likidezia edo kaudimen eskasia teknikoaren erabateko krisian adierazten dena eta aritzea eragozten diona.

Likideziaren krisizat joko da enpresaren gaitasunik eza berehalako ordainketei aurre egiteko, haren balantzatik ondorioztatua.

Kaudimen eskasia teknikoa zehazteko, kontuan hartuko da zorpetzeko gaitasuna enpresaren aktiboen aldean, izan litekeen balioan estimatuak, eta ustiapenaren galera edo irabaziak ere bai, ekoizpenaren batez besteko sarrerei dagokienez.

2.- Egoera horretatik garrantzi handiko zailtasun edo kalte sozialak atera ahal izatea.

3.- Egoera hori izanagatik ere, posible izatea gainditzeko neurriak hartzea, hura sortu duten zioak aztertutakoan.

4.- Enpresak gaitasunik ez izatea behar dituen baliabide likidoak eskuratzeko edo beste batzuen-gadik lortzeko.

5.- Epe luzerako enpresaren bideragarritasuna berreskuratzeko behar diren neurriak hartzeko prest egotea eta horretarako konpromisoa hartzea.

5. artikulua. Laguntza aplikagarriak.

Salbamendurako laguntzen funtsa izanen da abalak maileguan uztea, hirugarrengandik lortu beharreko kredituen berme gisa, edo maileguak ematea, enpresa abian jartzeko behar den likideziaz hornitzeko zenbatekoan, berreskuratzeko plana prestatzeko behar den denborarako bakarrik. Betiere, salbamendurako laguntzatzat emanen diren mailegu edo abalak ezin izanen dira sei ehun mila (600.000) eurotik goitikoak izan.

Abalak emateko baldintzak Nafarroako Gobernuak eskuarki ezartzen dituen berak izanen dira. Maileguen korrituak merkatuko antzekoak izanen dira, eta horietarako onartzen direnean ban-

kuarteko merkatuan indarra duen tasa hartuko da abiapuntutzat.

Salbamendurako laguntzek, hasiera batean, sei hilabete iraunen dute gehienez ere, eta eskuarki behin bakarrik emanen dira. Arau orokor hauen salbuespena bakarrik onartuko da, behar bezala frogaturiko salbuespenezko gorabeherengatik, salbamendurako eragiketak nahitaez gehiago iraun behar duenean, betiere urtebetetik behera, edo lehenbiziko eragiketa arrakastaz burutu ondoren gorabehera horiek sortzean, berriro egin behar denean. Esku hartzeko aldia luzatzeak edo salbamendurako eragiketa berriro egiteak ez dute behin ere ekarriko bideragarri izateko zentzuzko baldintzarik ez duen enpresa bati modu artifizial batean eustea.

6. artikulua. Laguntzen ordainketa.

Emaniko maileguak edo abalaren bermearekin eskuraturikoak salbamendurako eragiketak dirauen bitartean utziko dira enpresaren esku, sortuz doazen likidezia beharren arabera.

7. artikulua. Jarraipena eta kontrola.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak bertako teknikariak edo beharrezkotzat jotzen dituen kanpoko aholkulariak izendatuko ditu ematen dituen laguntzen jarraipena eta kontrola egiteko. Haiei dagokie laguntzak ordaintzeko unea eta era proposatzea; betiere Departamentua enpresaren bilakaerari buruz jakitun edukiko dute.

Beste Departamentu baten esku dagoen sektore bateko enpresak direnean, harekin batera izendatuko dira jarraipenaz arduratzen direnak.

8. artikulua. Salbamendurako eragiketaren bukaera.

1. Baldin eta salbamendurako eragiketaren garaian haren jarraipen eta kontrolerako izendaturiko pertsonak egiten dituen txostenetatik ondorioztatzen bada arrazoizko moduan ez dela posible berreskuratzeko plan bideragarri bat, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak erabakitzen ahalko du laguntzen ordainketa etetea, eta proposatzen ahalko dio Nafarroako Gobernuari bertan behera uzteko eta, hala bada, emaniko dirua itzul dezala hari eskatzeko.

2. Salbamendurako eragiketarako ezarritako epea bukatu, posible izan ez bada berreskuratzeko plan bideragarri bat prestatu eta abian jartzea, hots, plan haren exekuziotik arrazoizko moduan ez bada posible aurreikustea enpresa geroan bideratzea, Nafarroako Gobernuak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak proposaturik, erabakiko du nola eta zer baldintza-

tan itzuli behar den eragiketa dela-eta ordaindu den dirua.

3. Salbamenduko eragiketaren ondorioz eta harekin batera berreskuratu edo berregituratzeko plan bat prestatzen bada –Foru Lege honetan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak bildu beharko ditu–, Nafarroako Gobernuak plan hori hurrengo kapituluan arautzen den araubidean sartzen ahalko du eta, kasu horretan, salbamendurako emaniko laguntzak araubide horretan biltzen ahalko ditu.

III. KAPITULUA Berregituratzeko laguntzak

9. artikulua. Xedea

Berregituratzeko laguntzen xedea da planean aipatzen diren eragiketa eta neurriak abian jarzea, enpresaren lehiakortasuna eta epe luzearako bideragarritasuna berreskuratzeko.

10. artikulua. Betebeharrak.

Berregituratzeko laguntzak emateko, betebeharrak hauek bete beharko dira:

1. Enpresa krisi larrian egotea, alegia, hori gainditzen ez badu, desagertzeko moduan egotea.

2. Berregituratzeko plan zehatz, bideragarri, koherente eta errealista aurkeztea. Plan horrek enpresaren egoeratik eta egoera horren arrazoietatik abiatuz bideragarri izateko moduan jartzeko hartu behar diren denetarik neurriak zehaztu eta proposatu ditu.

3. Aurkezturiko berregituratze planetik arrazoizko moduan ondorioztatzea, bertan proposaturiko neurriak hartuz gero, enpresa, arrazoizko epean, berez merkatuan lehiakor izateko moduan jarriko dela eta kapitalaren gutxienezko errentagarritasuna lortuko duela.

4. Enpresak berregituratzeko planek, bai enpresa handietakoek, bai enpresa txiki eta ertainetakoek, EE Ituneko 92.3.c) artikuluan arabera Nafarroako eskualde laguntzagabeetan badaude, eta Europako Batasunaren esparruan gehiegi ekoizten duten sektoreetakoak badira, nahitaez ekoizteko gaitasuna gutxitu beharko dute Foru Lege honetan aipatzen diren laguntzak hartzeko eskubidea izateko.

Nafarroako eskualde lagunduetan kokaturik egon eta Europako Batasunean gehiegi ekoizten duten sektoreetakoak diren enpresei, berriz, aurreko baldintza eskatuko zaie handiak edo ertainak direnean. Egoera horretan dauden enpre-

sa txikiak, baina, ekoizteko gaitasunari atxikitzen ahalko zaizkie.

Esanak esan, Ituneko I. eranskineko nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko enpresei ekoizteko gaitasuna gutxitzeko betebeharrak aplikatzean, Europako Batasuneko berariazko arautegiko salbuespenak kontuan hartuko dira.

5. Laguntzen hartzaileek beren baliabideekin edo kanpoko finantzaketak lagundurik parte hartzea eta laguntzen zenbatekoa eta trinkotasuna berregituratzea ahalbidetzeko behar-beharrezkoa dena mugatzea.

6. Enpresak eta, hala bada, langileek konpromiso formala hartzea planean aurreikusten diren berregituratzeko neurriak hartzeko, hala nola, plantilla gutxitzea, kudeaketa hobetzea, jarduerak berregituratu eta zabaltzea, errenta ez diren jarduerak eskutik uztea, baliabide finantzarioak ekartzea eta abar. Halaber, beharrezkoa denean, enpresak bere hartzekodunekin dituen kreditu eta zorrak berriro negoziatu daitezela eskatzen ahalko da.

11. artikulua. Aplikatu daitezkeen laguntzak.

Berregituratzeko planaren ondoriozko beharren arabera, Nafarroako Gobernuak sustengarri hauek aplikatzen ahalko ditu:

1. Enpresaren tamaina egokitzeko laguntzak: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, beharrezkotzat jotzen den heinean, plantilla gutxitzeko kostuak eta bestelako kostu sozialak finantzatzeko, hala nola aholkularitzakoak, prestakuntzakoak eta bestelako lanak bilatzeko laguntza praktikokoak.

2. Saneamendu finantzarioetako laguntzak: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, zorpean itota dauden enpresen egoera finantzarioa hobetzeko.

3. Laguntza finantzarioak: bankuartereko korrituetatik goitikoak ez diren aurrerakin edo maileguak edo finantza entitateen maileguen berme gisako abalak, Nafarroako Gobernuak horretarako ezarriak edo ezartzekoak dituen baldintza eta bermeekin.

4. Berregituratzeko plana finantzatzeko itunduriko maileguen korrituen hobaria, enpresak ordaintzen ahalko duen kostua egin arte. Ezin izanen da inoiz bankuartereko merkatuan indarra duen korritutasaren % 50 baino txikiagoa izan.

5. Enpresak Nafarroako Foru Komunitatearekin dituen zorrak zatikatu eta geroratzeko baldintza bereziak, enpresa bere baliabideak bideragarri izan ahal dadin amortizatzeko behar den epe eta sistemari dagokionez. Korritu tasa ez da indarra duen legezko korrituaren ehuneko berrogeita

hamarretik goitiko izanen. Beste baldintzei dago-kienez, Nafarroako Gobernuak zorrak geroratu eta zatikatzeko eskuarki ezartzen dituenak izanen dira.

6. Zerga onurak:

6.1. Kapital soziala handitzeko eta berregitura-tzeko plana finantzatzeko behar diren mailegu edo kredituak emateko eragiketak zergapetzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergaren % 99ko kuota-ren hobaria.

6.2. Berregituratzeko plana onesten denetik eskuratzen diren likidazio oinarri negatiboek gutxi-tzen ahalko dituzte zergaldietako zerga oinarriak, zerga oinarria positiboa deneko lehenbiziko zergaldiaren hasieratik hamar urteetan eta hurrengo-etan bukatzen direnak.

Berregituratzeko planak indarra hartzean gutxi-tzeke dauden likidazio oinarri negatiboak gutxitze-ko epea zerga oinarria positiboa deneko lehenbi-ziko zergaldia hasi arte bertan behera utziko da.

Halaber, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko VI. Tituluko IV. Kapituluaren aurreikus-ten diren kenkariak aplikatzeko epeen kontaketa zerga oinarria positiboa deneko lehenbiziko zergaldia hasi arte atzeratu edo bertan behera utziko da.

Hala ere, berregituratzeko laguntzen artean artikulu honetako 2. idatz-zatian aurreikusiriko saneamendu finantzariarako itzuli beharrik gabe-ko dirulaguntza sartzen denean, dirulaguntza hori aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko era-biliko da. Horrela berregituratzeko planak indarra hartzean gutxitzeko dauden likidazio oinarri nega-tiboak ematen diren dirulaguntzaren zenbatekoan gutxituko dira. Gutxitze hori dirulaguntza hartzen duen enpresa saldu edo eskualdatzen denean ere mantenduko da.

12. artikulua. Berregituratzeko laguntzen muga.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren kontzep-tuengatik ematen diren laguntzek ezin gaintutuko dute hemezortzina mila (18.000) euroko dirula-guntza, berregituraketaren ondorioz finkatu nahi diren lanpostu finko bakoitzeko.

Ondorio horietarako, laguntzak honelaxe kon-tatuko dira:

a) Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzetan, zen-bateko osoa.

b) Abaletan, Nafarroako Gobernuak kontzesio-agatik kobratzen duen komisioren eta enpresak

abala finantza merkatuan eskuratu izan balu ordaindu beharko zukeenaren arteko aldea izanen da laguntza.

c) Aurrerakin edo maileguetan eta Nafarroako Gobernuarekiko zorren gerorapenetan, laguntza haiei aplikatzen zaien korritu tasaren eta kontze-sioaren unean bankuarterko merkatuan indarra duenaren arteko aldea izanen da.

d) Korrituen hobarian, kontzeptu horregatik maileguak dirauen bitartean ordainduko den zen-bateko osoa izanen da laguntza.

2. Enpresa txiki edo ertain baten bideragarritasuna eta errentagarritasuna ezartzeko aurreko idatz-zatian aipatzen dena baino diru gehiago behar denean, haren jarduera eta enpleguari eus-teko salbuespenezko gorabeherak gertatzen dire-nean, Nafarroako Gobernuak, laguntzak eman aitzin, Europako Batzordeari jakinaraziko dio, horrek baimena eman dezan.

3. Eskuarki, enpresa bat berregituratzeko eskuhartze publikoa behin bakarrik egin beharko da. Eskuhartzea batzuetan egiten ahalko da baka-rrik gerora gertaturiko salbuespenezko gorabehe-rak, ezin aurreikusizkoak, ageri direnean, haien zergatikoa enpresaren funtzionamendutik kanpo eta berregituratzeko planaren exekuziotik kanpo badago. Gorabeherak agiri bidez frogatu beharko dira. Neurri osagarri horiek bakarrik hartzen ahal-ko dira sorturiko zailtasunak gaintzeko eta enpresa bideragarritasunez abian jartzeko adina berme daudenean.

13. artikulua. Berregituratzeko laguntzen ordainketa.

Berregituratzeko laguntzak enpresei ordaindu-ko zaizkie edo haren esku utziko dira kontzesioko itunean zehazten diren modu eta baldintzetan. Berregituratzeko planaren exekuzioak dirauen bitartean egiten ahalko da, laguntzen xede diren jarduketara eta neurrien arabera.

IV. KAPITULUA

Aurretiko diagnostikoak eta planen prestakuntza

14. artikulua. Berregituratzeko planak presta-tzeko laguntzak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Depar-tamentuak dirulaguntzak ematen ahalko ditu aurretiko diagnostikoak egiteko egoera zailean dauden enpresak berregituratu edo berreskura-tzeko planak prestatzeko kanpoko kostuak ordain-tzeko, baldin eta salbamendurako laguntzak har-tzen dituzten edo Foru Lege honetan berregituratzeko aurreikusiriko laguntzak lortu

nahi dituzten enpresak badira. Horretarako, Departamentuak egiaztatuko du enpresak ezin ditzakeela kostu horiek guztiak eraman.

15. artikulua. Laguntzen zenbatekoa.

Berregituratzeko planak prestatzeko laguntzek ez dituzte gantutako, hasiera batean, enpresak hori dela-eta kanpoko ahokulariei ordaindu behar dizkien kostuak. Laguntzaren zenbatekoa ez da hogeita hamar mila (30.000) eurotik goitikoa izanen.

Enpresaren egoera dela-eta ehuneko hori gaintu behar baldin bada, laguntzaren zenbatekoak ez du hirurogei mila (60.000) euroko zenbatekoa gaintutako, gehienez ere. Kasu horretan, Departamentu hark jarraipen tresnak ezarriko ditu enpresak "de minimis" laguntzagatik hiru urtez hartu beharreko laguntzek Europako Batzordeak haietarako ezarri duen muga gaintu ez dezaten.

16. artikulua. Ordainketa.

Aurretiko diagnostikoak eta berregituraketa planak prestatzeko laguntzak ordaintzen ahalko zaizkio edo enpresari berari edo zuzenean lan horiek egin dituen pertsona edo entitateari, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak nola iritzi eta horrela, betiere, lanak aurkeztu ondoren eta Departamentu hark adostasuna adierazi ondoren.

V. KAPITULUA
Izapidaketa

17. artikulua. Eskabideak eta agiriak

Salbamendu edo berregituraketarako laguntzak emateko prozedura enpresa interesatua Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan eskabide bat aurkeztu duenean hasiko da. Harekin batera, kasuan kasurako laguntzarako 4 eta 10. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzen direla justifikatzeko behar diren azterlan, plan eta gainerako agiriak aurkeztuko dira. Adierazi beharko da enpresa txiki edo ertaina ala enpresa handia den.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak agiriak aztertuko ditu. Enpresari eskatzen ahalko dizkio azterketa egiteko eta espediente ebazteko komenigarri jotzen dituen datu edo argibide guztiak. Enpresak betebeharrak betetzen ez badu Departamentuak horretara ezartzen duen epean espediente artxibatzen ahalko du besterik gabe.

18. artikulua. Azterlana eta ebaluazioa.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko zerbitzu teknikoek aztertuko ditu aur-

kezturiko agiriak, kasuan kasuko laguntza emateko ezarritako betebeharrak bete direla egiaztatzeko, planetako neurri eta aurreikuspenen zorrotasun, koherentzia eta bideragarritasuna ebaluatzeko, eta enpresaren geroko bideragarritasunerako egokienak eta beharrezkoenak diren laguntzak proposatzeko.

Salbamendu edo berregituraketarako planen tamaina edo zailtasunagatik komeni denean, Departamentuak erabakitzen ahalko du kanpoko aholkulari beregainek alderatu ditzatela.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, laguntzak emateko behin betiko proposamena luzatu baino lehen, enpresaburuak eta langileen ordezkariak esateko dutena entzun die, beren iritzia eman dezaten eragiketaren arrakasta bermatzeko exijitu behar izan diren betebeharrak eta baldintzei buruz edo enpresak aurkezturiko salbamendu edo berregituratzeko planetan egindako aldaketa, doiketa eta egokitzapenei buruz.

Laguntzak eskatu dituen enpresa beste Departamentu baten eskumeneko sektorean aritzen bada, behin betiko proposamena luzatu baino lehen, txosten bat eskatuko dio laguntza horiei buruz. Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren txostena aginduzko eta loteslea izanen da proposatu beharreko laguntzen artean ondokoak daudenean: abalak, Nafarroako Gobernuarekiko zorren zatikatzea eta geroratzea edo 11.6 artikuluan aipatzen diren zerga onurak.

19. artikulua. Laguntzak ematea.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, eginiko azterlanak eta luzaturiko txostenak ikusi ondoren, Nafarroako Gobernuari proposatuko dio salbamendu edo berregituraketarako plana abian jarri eta burutzeko behar diren laguntzak emateko edo, behar diren baldintza eta betebeharrak biltzen ez dituela uste duenean, ukatzeko.

Laguntzak emateko erabakiak, ordaintzeko eta erabiltzeko zehaztapen eta baldintzez gain, parte hartzen duten aldeek hartu beharreko konpromiso eta eginbeharrak bilduko ditu, Foru Lege honetan eskuarki ezarri direnez gain. Ulertuko da konpromiso eta eginbeharrak horiek hartuak direla, laguntzak eman direla formalki jakinarazten denetik, hilabeteko epean onuradunek espreski adierazten ez dutenean ez dituztela hartu nahi.

Eskabidea eta behar diren agiriak aurkeztu direnetik edo, edo agiri guztiak edo aski ez direnean, osatzen direnetik, espreski ebazpenik eman

gabe hiru hilabete pasata, ulertuko da eskabidea ezetsia izan dela.

20. artikulua. Laguntzen metaketa

Araubide honen aplikazioa Europako Batasuneko agintariak laguntzen metaketari buruz eman dituzten arauen menpe egonen da, bai metaketa hori helburu bereko laguntzena ez denean, bai entitate berak edo entitate batzuek (Estatuko, eskualdeko edo udalerriko administrazioek) onarturiko araubideen arabera, helburu berekoena denean. Azken kasu honetan metaturiko laguntzak ezin gaindituko du zerikusirik duten araubide-eta gohieneko muga.

VI. KAPITULUA **Jarraipena eta kontrola**

21. artikulua. Jarraipena eta kontrola

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eskatuko die bertako teknikariei edo kanpoko aholkulari izendatuei onetsiriko salbamendu edo berregituraketarako planen jarraipena eta kontrola egiteko eta emaniko laguntzen erabilera eta helburua zuzena izan dadin zaintzeko. Haietxei egokituko zaie laguntzak ordaintzeko unea eta era proposatzea. Beti ere jakitun edukiko dute Departamentua enpresaren bilakaerari buruz eta planak betetzean gerta daitezkeen gorabeheri buruz.

Beste Departamentu baten eskumeneko enpresak izanez gero, harekin batera izendatuko dira jarraipenaz arduratzen direnak.

Aurrekoaz gain, parte hartzen duten departamentuek, betiere, beste baliabide batzuk ezartzen ahalko dituzte kontrolatzeko eta behartzen ahalko dute enpresa alde aurretik bere adostasuna edo jarraipen edo kontrolerako izendaturiko pertsonarena edukitzera ezartzen diren egintza edo erabakiak egitera.

Enpresa beharturik egonen da jarraipen eta kontrolerako izendaturiko pertsoneri erraztera lokalatan sartzea eta agiriak eskuratzea. Agirien kopia eskuratzen ahalko dute. Eskatzen dizkioten datu eta txosten guztiak aurkeztu beharko dizkie.

Enpresako langileen ordezkariak jarraipenaren ardura hartu duten pertsoneri kasuan kasuko enpresa salbatu eta berregituratzeko planaren betearazteari eta betetzeari buruzko informazioa eskatzen ahalko diete.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aldizka informazioa emanen die agente ekonomiko eta sozialei enpresak salbatu eta

berregituratzeko emandako laguntzei buruz eta erdietsitako emaitzei buruz.

22. artikulua. Urteko txostenen jakinarazpena.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak urtero Foru Lege honen bidez ezarritako laguntza araubidearen funtzionamenduari buruzko txosten bat igorriko du Europako Batzordea. Bertan Batzordeak horretarako ezarritako datu eta argibideak bilduko dira.

Urteko txosten hori, halaber, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan dauden agente sozialei igorriko zaie.

23. artikulua. Laguntzak bertan behera uztea, arau-haustea eta zehapenak

Enpresa onuradunak Foru Lege honetan aurreikusiriko laguntzen kontzesioaren ondoriozko egin-behar eta konpromisoak betetzen ez baditu, berregituratzeko eragiketak dirauen bitartean, aurreikuspenetan desbiderapen adierazgarriak badagoela egiaztatzen bada, hots, azkeneko helburua lortzea ezinezkoa dela frogatzen bada, Nafarroako Gobernuak erabakitzen ahalko du emaniko laguntzak bertan behera uztea eta, hala bada, kontzeptu horregatik harturiko dirua itzultzea.

Betiere, laguntzen onuradunari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orkorriari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean aurreikusiriko arau-hausteren bat egiten badu, bertako VI. kapituluaren aurreikusiriko zehapenak ezarriko zaizkio.

Zehapen prozedura Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak hasi eta izapidatuko du eta Nafarroako Gobernuak ebatziko du.

Xedapen indargabetzailea

Krisian dauden enpresak saneatu eta berriro abian jartzeko laguntzei buruzko martxoaren 4ko 1/1985 Foru Legea indarrak gabe uzten da.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta burutzeko behar diren xedapenak emateko, baita haren edukia Europako Batasunak krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko Estatuko laguntzei buruz ematen dituen jarraibideetan geroan izan litezkeen aldaketetarako egokitzeko ere.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko maiatzaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeek Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezaritakoarekin bat, proiektu hori Osasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko maiatzaren 18an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak.

Biltzrreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak

Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun laguntzako jarduketak arautzen ditu, Foru Komunitatean bizi diren herritar guztien osasuna babesteko eskubidea benetakoa izan dadin. 3. artikulua dio Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko dela.

Otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak Foru Komunitateko esparruan osasun-laguntza publikoa ororenganatu du, osasun publikoaren babesik ez daukatenak edo, edozein titulu juridikoren bidez, horretan sartzeko aukerarik ez dutenak ere har ditzan.

Ororentzako osasun laguntza ez dago bermaturik gure komunitatean. Nafarroan 8.000ren bat atzerritar bizi dira, eta, giza-multzo horren baitan, legez kanpoko 2.000 etorkin daude, gutxi gorabe-

hera. Azken hauei XX. mendearen bukaeran ez zaie oraindik onartu oinarritzko giza-eskubideetako bat: osasuna babesteko eskubidea. Konstituzioko 43. artikuluan agertzen da eskubide hori, eta onartu egiten zaie norberaren nahiz besteren konturako lan-kontratua daukaten etorkinei eta adingabekoei.

Nafarroako Gobernuaren 1997ko ekainaren 23ko erabaki baten ondorioz eskaintzen zaie osasun laguntza publikoa Foru Komunitatean dauden legez kanpoko atzerritarrei, baina ezohiko zerbitzu gisara eta gobernuz kanpoko erakunde batek eskaturik, patologiaren larrialdia hil ala bizikoa denean edo larrialdia erdi-mailakoa denean. Osasun zerbitzu batera beren kontura joanez gero, paziente pribatu gisara hartzen dituzte. Osasun laguntzaren faktura 7.000 pezetakoa da oinarritzko osasun laguntzako zentroetako medikuaren kontsultagatik, eta 15.000 pezetakoa, larrialdiko zerbitzuetan laguntza jasotzeagatik. Kostu horien barruan ez daude proba osagarriak, hala nola, erradiografiak, analisiak, etab.

Osasun laguntza publikoagatik kobratzeak ahulezia-egoera dakarkio giza-talde honi, guztientzako den osasun-sistema publikoak ez baitizkie eskubide eta betebeharrak zehatzak onartzen, eta sartzeko oztopoak ezartzen baitizkie. Giza-justiziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa da egoera hori, eta babesik eza dakar. Horren ondorioz, osasun arloko profesionalek askotariko jarrerak izan dituzte, egoera honetan ez baitakite zer egin.

Egoera baztertzailerik honetan, etorkin taldeak ezin die aurre egin zenbaterako horiei, eta, hala, bide gogaikarri eta desatsegin bat egin behar dute (gizarte-langileengana eta gobernuz kanpoko erakundeetara jo), txosten sozio-ekonomikoen bidez frogatzearen dirusarrera urriak dituztela medikufakturak ordaindu ahal izateko. Gainerakoan, beste bide alternatibo bat baizik ez dute: onegin-

tzako osasun zerbitzuetara jo dezakete; gobernuz kanpoko erakundeen elkartasunaren mendekoak dira horiek; Cáritasek, esaterako, 1.265 kontsulta egin ditu azken 12 hilabeteotan.

Giza-talde honen bazterketak eragin garrantzitsua du bere osasunaren babesean, bereziki patologia kronikoen kasuan; osasun publikoarentzako arrisku potentzialak dakartza, ez baititu kontuan hartzen gai oso garrantzitsuak, hala nola, gaixotasunei aurrea hartzea eta guztientzako osasun heziketa iraunkorra. Egoera hau ez dator bat gure osasun-sistema aurreratuenetako bat eta paradigma bat delako ustearekin, eta kalte egiten dio Osasunerako Mundu Erakundearen helburuekiko hartutako konpromisoari; hots, gure komunitatean ororentzat izan dadila, benetan, osasun-laguntza, XXI. mendea hastear dagoen honetan.

Beraz, honek guztiak erakusten du komenigarri dela gizatalde hori, gure Komunitatean osasun laguntza publikotik kanpo dagoen talde bakarra, Osasunari buruzko 10/1990 Legean sartzea; halatan, burutu egiten da osasun laguntza Foru Komunitatean bizi diren herritar guztiengana zabaltzeko prozesua, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

Lehen artikulua. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean, 3. artikuluko 1. parragrafoa aldatzea. Beraz, honela geratuko da:

“1. Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko da, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.”

Bigarren artikulua. Atzerritarrei eman beharreko osasun laguntzako programa beteko dela bermatzeko, Nafarroako Gobernuak finantziario osagarria eta berariazkoa sartuko du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Finantziario hori osasun laguntza publikoan herritar bakoitzak duen batez besteko kostuaren arabera egiten da, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5.14 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beharrezko neurriak hartuko ditu programa horretara atxikitakoei banan banako osasun txartela emateko. Txartel hori eskuratu ahaliko da eskatzaileak galdaturik edo, bestela, Nafarroan talde honen aldeko lana egiten duten gizarte-erakundeek egindako eskaeren bidez.

Xedapen gehigarria. Hiru hilabeteko epean, osasun laguntzari buruz indarrean dagoen legeria berrikusiko da, prozedura zein baldintzak egokitu eta etorkin guztiei, eraginkortasunez eta lehenbailehen, harrera egin dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki

zuen. Proposamen hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko toki entitate eta erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko toki entitate eta erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa".

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege proposamen hori bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkinak gizarteratzeko plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko maiatzaren 18an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkinak gizarteratzeko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkinak gizarteratzeko plan bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du, zortzi hilabeteko epean etorkinak gizarteratzeko plan bat igor dezan Biltzar honek onesteko. Plan horrek beharrezkoak diren baliabideak ezarriko ditu, pertsona diren aldetik dagozkien eskubideak aitor dakizkien, eta orobat ezarriko du prozesu bat, lege-babesik gabe dauden etorkinei lege-babesa ematearren. Hartara, hartu beharreko neurriak hartuko dira etorkinak gizarteratzeko eta gainerakoekiko dituzten harremanak eratzeko. Plana onetsi baino lehen, Parlamentuak bilerak eginen ditu etorkinak lanean ari diren elkarte eta erakundekin.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, haur hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) abiatzeko arauak egiterakoan irizpide batzuk kontuan har ditzan

ATZERA BIDADITAKO MOZIOA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, haur hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) abiatzeko arauak egiterakoan irizpide batzuk kontuan har ditzan".

2000ko maiatzaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Par-

lamentuko Taldeak aipatutako mozioa atzera bidali zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da C-135 errepi- dearen egokitze osoa 1998-2003ko Errepideen Plan Zuzentzailean sar dezan

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da C-135 errepi-dearen egokitze osoa 1998-2003ko Errepideen Plan Zuzentzailean sar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegi-tura Batzordeak, 2000ko maiatzaren 19an eginda-

ko bikuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko urriaren 20ko 12 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2000ko apirilaren 7ko 31 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. artikulua.-

1.- Biltzarreko kideen bosten batek eskatuta, Nafarroako Gobernuak premiatu ahal izango da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran ager dadin, Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egiteko.

2.- Eztabaida hori gehienez ere urtean behin egingo da, eta lehen bilkuraldian deitu beharko da, salbu eta Gobernuak Lehendakaria izendatzeko eztabaida egiten den urtean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean.

Eztabaidarako deia egin aurretik, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorriko dio Gobernuaren politika orokorrari eta Komunitatearen egoerari buruzko komunikazio bat, Osoko Bilkura horretan eztabaida dadin. Osoko Bilkura berezia izango da.”

Zioak: Prozedura zehazkiago arautzea.

2. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. artikulua.- Oro har, Erregelamendu honetako IV. kapituluko V. tituluaren ezarritako arauak aplikatuko dira; betiere, ondoko letretan ezarritakoari begiratuko zaio:

a) Eztabaida Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren hitzaldiarekin hasiko da, denbora mugarik gabe.

Azalpen hori amaiturik, Lehendakariak bilkura aldi baterako etengo du, Parlamentuko taldeek hitzaldia aztertu ahal izan dezaten.

b) Bilkuraldia berriz hasten denean, Parlamentuko talde guztiek, beren ordezkarien bitartez, parte hartu ahal izango dute. Parlamentuko taldeek parte hartzeko hurrenkera kide kopuruaren arabera ezarriko da; ekimena aurkeztu duten Parlamentuko taldeetako ordezkariak hasiko dira, eta, gero, kide gutxien dituzten ordezkariak hitz egingo dute; bukaeran kide gehien dituen Parlamentuko taldeko ordezkariak hitz egingo du.

c) Aurkako manurik ez badago, aurreko letrako parte-hartzeak ez dute hogeita minutu baino gehiago iraungo.

d) Behin eskatu duten Parlamentuko talde guztiek parte hartu dutenean, Gobernuak Lehendakariak berriz parte hartu ahal izango du.

e) Lehendakariak parte hartu ondoren, erantzuteko txanda bat, gehienez ere 10 minutukoa, eskaini ahal izango zaie Parlamentuko talde guztiei, hain zuzen ere artikuluko honetako b) letran ezarritako hurrenkera. Eztabaida Gobernuak Lehendakariaren parte-hartzearekin bukatuko da.

f) Eztabaida bukatu denean, Biltzarreko Lehendakariak epe bat zabalduko du, zeinean Parlamentuko taldeek Gobernua premiatzeko erabaki proposamenak aurkeztuko dizkioten Mahaia-ri; erabaki proposamen horietan ezin izango dira

sartu aurrekontu-hitzarmenak. Mahaiak eztabaida- ren helburuarekin bat datozen proposamenak onartuko ditu.

Zioak: Prozedura zehazkiago arautzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2000ko martxoaren 29ko 27 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko b) letra alda dadila proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“1.2 artikulua.- “Ondokoak joaten ahalko dira batzorde berezien bilkuretara:

b) Hizpiderik eta botorik gabe, batzorde horietako kide ez diren parlamentariak edo horien ordezkariak, nortasuna behar bezala egiaztatuta, bilkura, Erregelamendu honetako 75 eta 76. artikuluetan ezarritakoarekin bat, isilpekotzat jotzen den kasuetan izan ezik.

Gizarte-komunikabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala egiaztatuta, Nafarroako Gobernu kide bat agertzera doanean baizik ez, eta inola ere ez bilkura, Erregelamendu honetako 75 eta 76. artikuluetan ezarritakoarekin bat, isilpekotzat jotzen den kasuetan.”

Zioak: Batzorde berezien zergatiarekin koherentzia handiagoa.

2. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua alda dadila proposatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2. artikulua.- “ Batzordeen bilkurak ez dira jendaurrekoak izango. Halarik ere, gizarte-komunikabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala egiaztatuta, ohiko batzordeetara joaten ahalko dira, bilkura horiek isilpekoak direnean izan ezik.

Batzorde berezietara ere joaten ahalko dira, Erregelamendu honetako 54. artikulua xedaturikoari jarraituz”.

Zioak: Batzorde berezien zergatiarekin koherentzia handiagoa.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--